

ANDREAS, TXIRULARI ALDERRAIA



LEHEN HEZKUNTZARAKO KONTZERTUA

Pizkunde garaiko Musikak:
Susato, Dowland, Van Eyck, del Encina...
Fernando Palaciosen ipuina
“Looking Back” taldea, Andreas Prittwitzekin

MÚSICA EN ACCIÓN

Eskola eta Familia Kontzertuak 2009-2010
Kultura eta Turismo Departamentua. Nafarroako Gobernua.

Gida didaktikoa: Uxue Uriz Sucunza

*“Eta halaxe jarraitu zuen, mendebalderantz errari, bere musikarekin alde eginez.
Mendietara igo, ibaiak igaro, kobazuloetan lo eginez ibili zen
Andreas, musika beti berarekin zuela.”*

Sarrera

Musika:

Alde batetik Pizkunde garaia...
...eta beste aldetik Jazz musika

Kontzertuko musika egitaraua:

Pizkundetik Jazzera eta Jazzetik Pizkundera

Ipuina:

Nola txirulari alderrai batek bidean lagunak topatu eta haiekin musika jotzen duen.

Interpretatzaileak:

Andreas Prittwitz eta “Looking Back”

Instrumentuak:

Txirula ezta, klarineta, saxofoia, ganba-biola, gitarra eta perkusioa

Jarduerak:

Isiltasuna musika da
Elkarrekin joko dugu?
Zuk galdetu eta nik erantzun
Hitz-parrastadak
Atril tolesgarria egitea
Antzinako musika antzinako musika-tresnez

Bibliografia

Discografia

Sarrera

Txirula ezti, saxofoia, ganba-biola, gitarra, perkusio-tresnak, klarineta... Horrela ikusita, ez dirudi ohiko musika taldea denik, eta izan ere, ez da batere ohikoa.

Eta ez da ohikoa, ezta ere, Juan del Encina musikagilearen “Las tres morillas” pieza saxofoi hutsez, bakar saioa jota aditzea.

*Instrumentu talde honekin eta estilo nahasketa horretan osatu du bere proiektua **Andreas Prittwitzek**. Musikagile hau antzinako musikan aditua da, eta gainera, Espainian den saxofoi eta klarinete jotzailerik ospetsuenetakoa, nola jazz munduan, hala musika komertzialaren alorrean ere.*

Taldeak eta proiektuak izen berbera dute –“Looking back over the Renaissance”-, eta oinarrian Pizkunde garaiko musikak nahastu egiten ditu egungo jazz inprobisazioekin eta instrumentuen hotsekin, besteak beste klarinetearekin eta saxofoiarekin.

*Horri guzti horri **Fernando Palacios**ek idatzitako ipuina eransten badiogu, umeendako kontzertu handi bat aurkituko dugu: Andreas, txirulari alderraia.*

Gida didaktiko hau musika irakasleentzat propio egina da, kontzertuari buruzko informazioa eskaintzeko eta ikasleendako jarduerak iradokitzeke, beti ere egokitu daitezkeenak ikasleen mailaren arabera. Kontzertuari dagokionez, ederki erakusten du aukeratutako pieza-sortaren eta instrumentuen alderdi-aniztasuna, funtsezko baloreak jartzen ditu dantzan, eta musika jotzeak berekin duen gozamina kutsatu egiten du.

Musika:

Alde batetik Pizkunde garaia...

Grezia eta Erromako antzinako Kulturak berriz ere ezagutzeko gogoia bizi-bizi zebilen XV. eta XVI. mendeetako Europan.

“Renaissance” hitzak, frantsesez, “berriz sortzea” esan nahi du, eta hizkuntza horretan erabili zuen, lehenbizikoz, Jules Michelet historialariak, 1855ean. Une hartatik aurrera kulturaren, artearen eta, azkenik, musikaren historiagileek erabiliko zuten, historiaren tarte bat izendatzeko.



Gainetik esanda, hiru aldi bereiz ditzakegu Pizkundea garatu zeneko 150 urteetan:

- Pizkunde aurrekoa, 1450 eta 1500 urte bitartekoa.
Italian eusten zioten bizienik antzinako aroaren suari, eta Florentzian abiatuko zen mugimendua, bai literaturan (Dante, Petrarca, Bocaccio...) bai artean (Giotto, Brunelleschi, Donatello...) eta musikan ere (Josquin des Près, Dufay...).
- Pizkunde garai betea, XVI. mendearen lehenbiziko erdialdean garatu zena.
Artearen erdigunea Florentzian Erromara lekualdatu zen. Handien garaia da –Michel Angelo, Leonardo da Vinci eta Rafael- eta musikan aipagarriak dira Palestrina eta Guerrero, besteak beste. Guztiek ere eginahalak egiten dituzte euren artearen bidez oreka, proportzioa eta lasaitasuna adierazteko.
- Hirugarren aldia, “manierismo” (“maniérisme” fr.) garaia deitu izan dena, formen gehiegizko zaletasunaren sasoia izan zen. Venezian izan zuen erdigunea, eta han erabili zituzten Tizianok eta Tintoretok, eskuzabalik, kolorea, argitasuna eta apaingarrien luxua.

Musikan ere islatuko zen joritasun hori, Gabrielli eta Monteverdi konposatzaileen eskutik, besteak beste.

Kultura klasiko greko-erromatarra baloratu nahi izan zuten artistei eta jakintsuei “humanista” deitu zieten, eta euren eragina Italiatik Europa osora zabaldu zen, unibertsitateak, liburuak eta euren arte-lanek lortutako ospea zirela medio.

Zenbait ikerlarik zalantzan jartzen dute pizkunde kontzeptua musikari eranstean ahal zaion ala ez, mende eta erdi hartan musikak aldaketa biziak izan zituela eta, pizkunde garaiko musika-eredua zehazteko modurik ez dagoela esanez. Izan ere, historialari hainbatek dioenez, mugimendu horrek izaera orokorragoa izan zuen kulturaren eta pentsaeraren munduan, musika era eta teknika berriak zerabiltzan talde berezi baten ezaugarriak izatetik haratago.

Pizkundeko mugimenduak ez zuen ekarri aldaketa sakonik soinuen arteari dagokionez. Ez zen izan aurreko aldiarekiko etenaldirik eta antzinako klasikoaren musika-moldeekiko itsukeriarik ere ez. Musikak bere bidea egin zuen, besterik gabe.

Egia da XV. eta XVI. mendeetako musikak ez zuela aurkitu Antzinatean klasikoan inspiratzeko moduko jatorrizko lanik, gainerako arte-moldeek izan zuten bezala, baina, hala ere, badira osagaiak pizkundeko musikan, Erdi Aroko musikaren aldean “*humanizazioa*” ekartzen zutenak:

- Ildo melodikoak akordea garatzen du –mailaketa polifonikoaz.
- Harmonia funtzionalaren oinarriak ezartzen dira.
- Melodiak sinplifikatzen dira eta soilagoak dira, giza arnasaren arabera egituratuta.
- Erdi Aroaren amaierako erritmo konplexuek bide eman zioten bizi-bultzadari.
- Ahozko musikak adierazten eta islatzen du testuaren eduki emozionala.
- Musika profanoa gehiago agertzen da.
- Inprimagailuaren sorkuntzak musikaren hedapen lasterra errazten du, eta historiako gordetzea bermatzen.

... eta beste aldetik, Jazz musika

“Jazz musika sailkatzerakoan “hot”, “cool”, “swing”, “bebop” eta “fusion” hitzak erabili izan dira, baina horiek eta gehiago ere bada. Jazza askatasunaren eta norberaren eskubideen adierazpena da, bat-batean jotako musika saioen bidez egina. Pertsonak bere emozioak musikaren bidez adierazteko duen modu bat da.

Art Blakely jazz bateria jotzaile ospetsuaren hitzetan, “*eguneroko bizimoduari hautsa kentzen dio Jazzak*”. Estatu Batuarren demokraziaren musika-adierazpenik berezkoena jo izan da jazza, indibidualismoan eta konpromisoan, independentzian eta elkarlanean oinarritzen baita.

New Orleansen XIX. mendean sortu bazen ere, 200 urte baino gehiagoko sormen-aldiaren ondorio da jazza, mundu osoko eraginak jasotzen baititu, batik bat Afrika, Latinamerika eta Europakoak. New Orleans izan zen bere garaiko hiririk kosmopolitena, kultura nahiz herri anitzetako jendea biltzen baitzen bertan. Storyville auzunean, taberna nahiz burdel asko zituela eta ospetsu bihurtutako txokoan, giro egokia topatu zuten musikariek euren musikarekin esperimentatzeko eta konposatzeko.



1890eko hamarkadarako baziren bi eredu ongi bereziak New Orleansen jotzen zen musikaren baitan: *ragtime* eta *blues*, hain zuzen. *Ragtime* delakoa, bere erritmo sinkopatu berritzaileak zekartzala, oso gustukoa zuten herritarrek. *Blues* izenekoak, berriz, akorde eta hitz sentikorrez josita, *gospel* izenekoaren eta musika espiritualaren dei-erantzun eredu imitatzen zuen. Halako batean, musikari batzuk hasi ziren haize instrumentuez jotzen *blues* musika, urrats handia emanaz jazzaren bilakaeran.

Egia esanda, ez dago esaterik pertsona bakar bati dagokiola musika genero hau sortu izanaren meritua. Beltz arrazako esklaboen eta landaketa handien jabe arraza zurikoen seme-alabek zeresan handia izan zuten jazzaren historian. Musikari anitzek ikasketa klasikoak egin zituzten europar tradizio musikalean, eta New Orleansko orkestra sinfonikoetan jotzen zuten, edo armadaren bandetan, desfile, eztei eta halako ospakizunetan. Hauek eta beste musikari berritzaile anitzek, arraza beltz nahiz zurikoek, esperimentatu zuten *ragtime* eta *blues* musika erduekin, musika-tresna berriak erantsiz eta bat-bateko saioei tarteak zabalduz. Itzul gaitzen, bada, iraganeko garai hartara, musikari haiek utzi ziguten ondarea ikustera, eta aitor dezagun guztiek egindako lanaren ondorioa dela jazz musika.

New York hirian, 1917an, arraza zuriko bost musikaririk, New Orleansetik etorrira, “Original Dixieland Jazz Band” izenpean egin zuten jazz musikaren lehenbiziko diskoaren grabaketa. “*Livery Stable Blues*” temak berehalako arrakasta izan zuen, eta ordura arte egindako beste edozein grabaketa baino gehiago saldu zen.

Ondorengo urteetan, arraza beltzeko estatubatuar anitz hegoaldetik iparraldeko hirietara joan ziren, lana eta bizimodu hobearen bila. Haietatik asko musikariak ziren.

Jazza laster zabaltzeko beste eragile bat zera izan zen, Lege Idorra delakoa. 1920ko hamarkadan, legez kanpo jarri zituzten edari alkoholduinak Estatu Batuetan, eta tabernak hertsia egin zituzten. Orduan, taberna klandestino anitz zabaldu ziren lurralde osoan, herri eta hirietan, eta haietan, bereziki hiri handietako taberna-zuloetan, bezeroek gogo biziz espero zuten “jazz” esaten zioten musika molde berri eta ausart hura entzuteko aukera izatea.

Chicago hirian, berriz, Louis Armstrongek, orduan turuta jotzailea zenak, bat egin zuen *King Oliver’s Creole Jazz Band* izenekoarekin 1922an, eta izugarritzko grina piztu zuen hirian. Oliverren babesa izan zen aurrerantzean, eta guztien aitormena erdiesten zuen bere kantatzeko eta tronpeta jotzeko era alai eta joriagatik.

New Yorken, 1920ko hamarkadan, Harlemgo musika aretoetara zabaltzen zen jazza deabruak eramanda. Garai hartako jazz musikariek berrikuntzak erantsiko zizkieten musika genero honi, aurrerantzean eragin handikoak izanen zirenak. Flechter Henderson eta bere banda, nonbait, aspertuta zeuden dantzarako musika “heziketa onekoa” jotzeaz eta, orkestrarako moldaketak bat-bateko saio libreekin tartekatuz, “*swing*” izeneko estiloa sortu zuten. Louis Armstrongek ere eragin handia izan zen eredu berri honen bilakaeran. Laster ari zen Armstrong diskoak grabatzen bere izenarekin. Haren bandek ez zuten behin ere jendaurrean jo, baina grabatutako diskoak jazz musikako klasikoak bihurtuko ziren.

Jazz musikari aipagarriak

Berritzaile paregabea izan zen Armstrong jazzaren lehenbiziko urteetan. *Scat* izeneko arikari zuten, kantatzeko era berria, hitzak argi esatea baino, silabaka igortzen zirela, inongo zentzurik gabe. Legendak kontatzen duenez, *scat* erara, lehenbizikoz, grabaketa saio batean kantatu zuen. Kantuaren letra jasotzen zueneko papera lurrera erori omen zitzaion eta, bere halaxe kantatu behar izan omen zuen. Bere ibilbideak eta bere musikak aurrera egin ahala, Jazzaren Errege eztabaidaezina bihurtu zen.

Beste musikari handi bat jazzaren garapenean Edward “Duke” Ellington izanen zen. Washington D.C.n jaio zen, eta hasieran piano jotzaile gisa izan zuen arrasta New Yorken. Bere ibilbide luze eta oparoan orkestrarako idatzi zituen kantuak jazzeko klasikoak bilakatu dira, besteak beste “*It Don’t Mean a Thing*”, “*In a Sentimental Mood*” eta “*Take the ‘A’ Train*”.

Gainbehera Handiaren garaian ere (1929-1941), poz aldia ekartzen zien amerikarrei jazzak. Herrialdea pobrezia gorrian egonda ere, aurrera egin zuten euren musikarekin Armstrongek, Ellingtonek eta beste hainbatek.

1930 eta 1940 hamarkadetan Billie Holliday eta Ella Fitzgerald kantarien ospea zabaldu zen ipar Amerikan. Ahots dardartsu eta zirraragarri haiekin, euren garaiko jazz kantari itzaltsuenetakoak izan ziren biak ala biak.

1940ko hamarkadaren hasieran, bi gizon taula gainera iritsi eta, betiko aldatuko zuten jazzaren bilakaera. Charlie Parker saxofoi jotzailea eta “Dizsi” Gillespie tronpeta jotzailea izanen ziren. Parkerrek “fraseo” eta “solo” estilo berria ekarri zuen, akordeak melodiaren gainean jarrita. Gillespiek, berriz, akordeen aldaketen zentzua aldatu zuen, eta jazzaren erritmoa eta sofistikazioa zabaldu zituen, melodia eta armonia eduki berri batekin. Haren jazz eredu *bebop* edo, besterik gabe, *bop* izenaz hedatu zen. Hasieran, kazetarien eta musika-kritikarien kritikak jasan zituen, baina denborak aurrera egin ahala, jarraitzaile eta musikari saila bereganatu zituen.

Jazza hedatu egiten da

1950 eta 1960 hamarkaden amaieran, hainbat musikaririk, jazzaren arrasto nagusitik alde eginez, jazz musika eta klasikoa nahasten hasi ziren, haietatik aipagarrienetakoak John Lewis piano jotzailea, *Modern Jazz Quartet* zuzendu zuena, eta Gunther Schuller musikagilea.

Aldi berean, beste jazz mota bat garatzen zen, musika klasikoan inspiratuta sortzen zena. Jazz molde hau samurra zen tonu aldetik, baina oso konplexua, eta *cool* izenaz bataiatu zuten. Miles Davis tronpeta jotzaile eta orkestra zuzendaria izan zen *jazz cool* delako honen aurrendarietako bat, eta arrakasta lortu zuen generoak haren “*Kind of Blue*” diskoarekin, 1959an.

1960ko hamarkadan, gazte jendeak jazzetik *rock and roll* aldera alde egingen ote zuen susmoa zabaldu zen. Jazz jotzaile batzuk atzerrira joan ziren, beste batzuek, berriz, herrian geratzea aukeratu zuten, eta gauza berriak ekarri zituzten, jazza jotzeko norberak zuen moduarekin. Miles Davisek, esaterako, ordurako egina zuen bere ekarpena, baina berriz ere, beste bide bat zabaldu zuen, “fusion” deituko zenaren ildotik. Molde honetan, ordura arte taldeetan ohikoak ez ziren musika tresnak agertu ziren taula gainean, besteak beste gitarra eta baxu elektrikoak, organoa eta perkusioa.

Estatu Batuetako tradiziozko jazzak Amerika latinotik heldutako erritmoen eragina ere jaso zuen, bereziki Kuba eta Brasilgo musikariengandik.

Lehenagoko eraginei esanahi berria emanez, jazz neoklasikoak soinu tradizionalera erakarri du, atzera ere, nazioarteko entzuleria. Jazzaren hasierako estiloetako musika jotze hutsetik haratago, Wynton Marsalis tronpetistak eta bere anai Brandford Marsalisek harmonia, melodia eta erritmoa jasotzeko era berritzaileak ekarri dizkiote musika- genero honi. Klasikoan ikasketak dituen musikaria izanik, Grammy Saria jazz eta klasiko musika moldeetan urte berean (1982) jaso duen lehenengo pertsona izan da Wynton Marsalis. 1997an Pulitzer Saria jaso zuen jazz musikan. New Yorkeko Lincoln Center itzaltsuan jazz orkestrako zuzendari gisa egin duen lana oso lagungarria izan da jazz musika entzule berriengana eramateko, gazteendako heziketa programetan musika genero honen historia nabarmentzeko eginahalak egin baititu.

New Orleansen orain mende bat dela sortu zenetik hona, jarraitzaile sutsuak lortu dituen eta mundu osoko musikariak jotzaile dituen gertaera musikala bilakatu da jazzak.”

(2003ko apirileko English Team Forum aldizkarian (41 lib., 2 zk) argitaratutako “*All That Jazz*” artikulutik aterea eta Javier Salazarrek itzulua)



Kontzertuko musika egitaraua:

Pizkundetik Jazzera eta Jazzetik Pizkundera

Andreas Prittwitzek aitortzen duenez, musika desberdinen arteko nahasketaren eta euren arteko elkarbizitza onaren aldekoa da bera. Ez da harrizkoa, izan ere, musikari gisa egin duen ibilbidean, txirula ezta maisuki jotzeaz gain, saxofoia eta klarinetea bikain jotzen ditu, jazz musikari aparta da eta artista espainol handien laguntzaile eta ekoizle ere aritu izan da.

Musika anitz bildu eta nahasteko grinak eramanda, pizkunde garaiko musikak jazzaren eskutik bisitatzeko paseoa proposatzen digu Andreasek, tartean batera aurkituko ditugula bat-batekoak, jazz eta pizkundeko musika, eta denboran elkarrengandik urrun egon daitezke instrumentuak, esaterako ganba-biola eta saxofoia.

Hasiera batean, funtsik gabeko burutazioa irudi lezake baina, bitxia da aztertzea nola pizkundeko musikaren eta jazzaren zenbait ezaugarri bat etortzen diren:

- armonia funtzionalaren garrantzia.
- Ahots edo instrumentu saio desberdinen kontzepzio bateratua.
- Melodia errazak, testuaren zerbitzura eginak, eta egitura giza arnasketan oinarritua dutenak.
- Adierazkortasuna, sentimendu eta emozioak kanporatzearen garrantzia.
- Instrumentuek kantua imitatzen dute.

“Looking Back over the Renaissance” proiektuak esperientzia berritzailea dakar fusio-musikaren mundura (musika-estilo desberdinak nahastea), non saxoaren eta klarinetearen kolorea eta gorputza jori aritzen diren bat-bateko saioetan, txirula ezta eta gitarra bezalako instrumentuen tinbreak eta fineziak inspiraturik.

Andreas Prittwitzek ezabatu egiten ditu musika eta sonoritate batzuen eta besteen arteko mugak, eta hori guzti hori sentiberatasun eta finezia handiz, musika bera gozagarri bihurtuz.

Prittwitzek berak dioenez, *“pizkundeko sonoritatearen eta modernoaren arteko elkarbizitza osotara naturala eta batere ez bortxatua gertatzen da, soinu benetan berria eta harrigarria ekarri”*.

Kontzertuan Looking Back taldeak interpretatuko duen errepertorioa, bapateko saioei oinarria eskainiko diena, honako hau da:

- *Hoy comamos y bebamos* *Juan del Encina (1469-1529)*
- *Come again* *John Dowland (1563-1626)*
- *King of Denmark* *John Dowland (1563-1626)*
- *D'lof zangh Marie* *Jakob van Eyck (1590-1657)*
- *Las tres morillas* *Anónimo español, s. XVI*
- *Rondó y saltarello* *Tylman Susato (1500-1562)*
- *Dafne over schoene Maeght* *Tylman Susato (1500-1562)*
- *Riu riu chiu* *Anónimo español, s. XVI*

Lan hauetako zati aukeratu zenbait, Looking Backek interpretatuak, aurkituko dituzue honako web orri honetan. <http://www.lookingback.eu/>

Ipuina:

Nola flautista alderrai batek bidean lagunak topatu eta haiekin musika jotzen duen



Fernando Palacios da “Andreas, txirulari alderraia” musika-ipuinaren egilea. Bere lanbidean alderdi anitzetan aritu izan da eta, –musika-pedagogoa, konposatzailea, pedagogia programen aholkulari Espainiako hainbat erkidego eta orkestratan, etab.- honezkero, ederki trebatu da Fernando musika entzule guztiengana hurbilarazteko kontuan, batez ere umeei dagokienean.

Ipuin honetako protagonista den Rudy umea, itxuraz normala delarik, baina grina ezohikoa zuen: txistu egiten zuen, eta ezin gelditu.

Inolaz ere etenik egiten ez zuenez, gurasoek medikuarengana eramatea erabaki zuten, eta honek ere bere mediku lagun askorekin solastu zen kasuaz, harik eta, haietako batek, antzeko kasu bat aipatu zion arte.

Andreas gazte alemaniarrari Rudyri gertatzen zitzaion gauza bera gertatzen zitzaion, baina hari txirularekin: ezin utzi txirula jotzeari.

Andreasen kasua Municheko Udaleko udalbatzarreraino eraman zuten, eta hark hiritik kanpora egozte erabaki zuen.

Eta bideetan aurrera, herrietan barna zebilela, Laurarekin topo egin zuen. Honek ganba-biola jotzen zuen, eta musikan isiluneak errespetatzea zeinen garrantzitsua den erakutsi zion. Sergiok, berriz, zera erakutsi zion, musika musika dela inork interpretatzen duenean. Azkenik, Antoniok, bere gitarrarekin, beste batzuekin nola jo behar den eta zeinen dibertigarria den erakutsi zion.

Kontzertu hau familia-kontzertu moduan estreinatu zen Lizarrako Antzinako Musikaren Astean 2008ko irailean.

Interpretatzaileak:

Andreas Prittwitz



Alemanian jaio zen 1960an, eta txikitatik ikasi zuen txirula eztea, baita hainbat sari irabazi ere. Kontzertuak eman zituen Europan eta AEBetan barrena, Bavierako Ganbera Orkestrako bakarlari gisa, eta ARS NOVA eta Municheko Hirukote Barrokoa taldeekin ere bai.

1978an Espainiara etorri zen bizitzera, eta jotzen aritzen da Espainiako Ganbera Orkestrarekin, Asturiasko Sinfonikoarekin, Atrium Musicaerekin, Zarabandarekin eta Nalongo Ganbera Orkestrarekin, besteak beste.

Une horretatik aurrera, musika guztiekiko interesak lan bidea alor anitzetan garatzera eraman zuen.

Saxofonista autodidakta da, eta jazzaren alorrean hainbat musikari ospetsuren ondoan lan egin izan du, besteak beste, Pedro Ruy Blas, Conny Phillip, Canal Street Jazzband, Jazz el Destripador, eta Jorge Pardo tartean direla.

Elkarlanean aritu izan ohi da, halaber, Luis Eduardo Aute, Víctor Manuel eta Ana Belén, Javier Krahe, Joaquín Sabina, Miguel Ríos, Joan Manuel Serrat eta beste hainbatekin, eta disko-ekoizle gisa Miguel Ríos (“Big Band Ríos”), Toreros Muertos, Elegantes, 091, Manolo Tena, José Antonio Ramos, Pedro Ruy Blas eta beste anitzekin.

Orkestrarako, antzerkirako eta dantza garaikiderako konposatu eta estreinatu izan ditu hainbat lan, bai eta publizitaterako lanak (Iberia, Repsol, BBV, ICEX, Dragados...), dokumentalak (Greenpeace, Telemadrیدهko Enclave Verde) eta berak sortutakoak ere (12 CD “Terra” bilduman). 2005ean Musikaren Akademiak eskaintzen dituen Musika Sarietako bururaino iritsi zen, J.A. Ramosekin batera, “jose antonio ramos Y andreas prittwitz” CDarekin. Telemadrیدهko musika-aholkularia izan zen 1988-90 urte bitartean. 1998an “INGO música” diskoetxea sortu zuen, egun 30 argitalpen baino gehiago dituen diskoetxea, tartean Madrilgo Café Central delakotik zuzenean egindako grabaketan bilduma.

Orain dela 11 urtetik hona Fundación Municipal de Cultura de Gijón (Asturias) delakoak antolatzen duen inprobisazio ikastaroa koordinatzen du. Antzezle gisa hainbat pelikulatan parte hartu izan du, esaterako Julio Medemen “La Ardilla Roja”, edo Mario Menéndez-en “El Vivo Retrato”, filmetan. Orain hamar urtetik hona alemanerazko lokuzioak egiten ditu, bai pelikulen bikoizketan, bai publizitatean nahiz dokumentaletan ere.

Andreas Prittwitzekin batera, Laura Salinas (ganba-biola), Antonio Toledo (gitarra) eta Sergio Martínez (perkusioa) aritzen dira Looking Back taldean. Informazio gehiago haiei guztiei buruz <http://www.lookingback.eu/> orrian.



Instrumentuak:

txirula ezitia, klarinetea, saxofoia, ganba-biola, gitarra eta perkusioa

XV. eta XVI. mendeetara bitartean, ahozko musika izan zen protagonista nagusia, baina Pizkunde garaian musika instrumentalak piztuko du interesa, musikariengan bezala entzule gehienengan ere.

XV. mendetik aitzina, berriz, instrumentuak taldeka biltzen hasten dira, euren ezaugarri teknikoengatik eta hoskidetasunagatik, familiaka, eta tamainaren arabera, familia bakoitzaren barnean.

Hiru dira garai honetan ohikoenak ziren instrumentu multzoak:

- harizko instrumentuek osatutako saila, biolen familia, alegia, tamaina desberdinetan eginak eta izena eusteko gorputz-atalaren arabera hartzen zutenak: beso-biola, ganba-biola, eta beste hainbat, altu, tenor, baxu, etab.
- zurezko haize-instrumentu eta txirulen familia (oboe, txirimia, etab.) biolekin ere elkartzen zirenak.
- haize-metalezko instrumentu multzoak (serpentoia, sakabutxea, tronpeta...)

Multzo edo sail hauei beste hainbat instrumentu gehitu behar zitzairen, esaterako laudeak, bihuelak, etab., bai eta tekladun instrumentuak ere.

Musika instrumentala, sortzez, ahotserako pieza polifonikoak edo dantzarako musika instrumentuendako idatziak ziren.

XVI. mendearan arabera, ganbera taldeak eta kontzerturako orkestra txikiak osatzen ziren.

Ondoren, labur bada ere, kontzertuan entzunen ditugun instrumentuak aurkeztuko ditugu: txirula ezitia edo moko-txirula, klarinetea, saxofoia, ganba-biola, gitarra eta perkusioa.

Txirula ezitia edo moko-txirula

Zaila da data bat jartzea instrumentu honen sorrerari, izan ere, antzina-antzinatik egiten baitira txirula xumeak hezurrez eta ziri hutsez, bertan zenbait zulo egin eta, soinua lortzeko, ahoan alaka bat erantsiz.



Garai distiratsua izan zuen Pizkudean eta Barrokoan, ondoren zeharkako txirulak kendu ziola lekua, indar handiagoa eta aukera handiagoak eskaintzen baitzituen. XX. mendean, ordea, berriro ere agertu da auditorio eta kontserbatorioetan, antzinako musikak eta berau jatorrizko tresnez jotzeak piztu duten interesari esker.

Klarinetea

Txirula bezala, klarinetea ere zurezko haize-instrumentuen familiakoa da.

Klarinetea mihi soileko aerofonoa da, eta XVIII. mendean garatu ziren gehienbat, handik mende batera haren giltza-sistema hobetu zuela Böhm musikariak.



Orkestrako instrumentu zaluenetakoa da eta, hotsetan nahiz erregistroetan duen aukera zabalari esker, musika talde askotako partaidea da klarinetea, musika tradizionalera, jazzera nahiz beste estilo askotara bikain egokitzen baita.

Saxofoia

Ez da ohikoa instrumentuen asmatzaileak euren izena ematea asmatutako tresnari, baina, atsotitzak dioenez, salbuespenak berresten du araua eta, salbuespen horietako bat Adolphe Sax da, 1846an bere izena eman baitzion berak asmatutako tresnari.



Saxoak, klarinetearen ahokoarekin batera, oboeak duenaren antzeko giltza-sistema bat du, baina tutu koniko batean kokatuak, amaieran ezkila ireki moduko bat daukala. Adolphe Saxek 14 tamaina desberdinetako saxoak egin zituen, baina egun lau erabiltzen dira: saxo sopranoa, altua, tenorra eta baritonoa.

Ez da oso ohikoa orkestran, baina bandetan oso hedatua agertzen da, saxofoi laukotea deitzen dena osatuz. Instrumentu honek egiazko arrakasta, aitormena eta garapena, ordea, jazz musikan aurkitu du, soinuen aldetik eta adierazkortasun aldetik eskaintzen duen aukera zabalari esker.

Ganba-biola

Biolaren instrumentu-familia lau, bost, sei edo hari gehiagoko instrumentuek osatzen dute. Giderrean trasteak dituzte, gitarrak bezala, baina arku batez jotzen dira. Egitura biolontzeloarenaren oso antzekoa da, irudian ikus dezakezuen bezala. Eusteko moduak ematen dio izena, hanka (ganba) artean, alegia.

Biolak oso ospetsuak izan ziren, harik eta, XVIII. mendean, biolinen familiak lekua kendu zien arte.



Gitarra

Gitarra hari pultsatuzko instrumentua da, historian barna aldaera anitz ezagutu dituen baina, funtsean, honako atal hauek dituena: erresonantzia-kaxa, giderra, zubia, larakoa (klabijeroa) eta, jakina, hariak edo sokak.



Instrumentu honen jatorria ez dago oso argi, anitz baitira aurrekari izan daitezkeenak eta, beste alde batetik, herri anitzetan garatu izan baitira haiek.

XVII. mendean berriz, gitarra espainola izena hartu zuen instrumentuak, bertan egiten ziren gitarren kalitateagatik.

Perkusio instrumentuak

Instrumentu familia zabalik baldin bada, horixe perkusio tresnen familia da. Irudi lezake edonork jotzen ahal duela perkusio tresna bat, aski baita jotzea, astintzea edo igurztea soinua ateratzeko, baina hortik ongi jotzera bada puska bat.



Kontzertu honetan, panderotik hasi eta ahuntz-azkazalez egindako soinailuak ere adituko ditugu, tartean klarinetearen kaxa ere bai, baina beti ere behar den unean, zehaztasun handiz eta adierazkortasun handiz jota.

Jarduerak:

Isiltasuna musika da

Irakasle askok gogoratuko duzue musikaren teoriatzko liburuetan agertzen zen definizio hura:

MUSIKA: soinuak eta denbora tartekatze artea da.

Beste definizio batek aipatzen du soinuen eta isiluneen tartekatzea.

Andreas etengabe aritzen baitzen txirula jotzen, entzuten gelditzen zen jendeak ez zuen deus ere ulertzen, eta, etenik ez baitzen batere, txalorik egiteko aukerarik ere gabe, alde egiten zuten handik...

Laurarekin topo egiten duenean, berriz, musikan isiltasunari tartekak zabaldu behar zaizkiola ikasi zuen Andreasek. Pieza amaitu eta, besterik gabe, gelditzean, orduan ulertzen da lanaren hasiera eta amaiera.

Fernando Palaciosen *Escuchar* liburuan, artikulua interesgarria aurkituko duzue isiltasuna eta haren alderdi eta agerpen guztiak, isiltasuna bizitzan eta artean, azaltzen duena.

Artikulu horretan, isiluneak musikan duen lekua azaltzeko Ramón Barcekin proposatzen duen sailkapena aipatzen da:

“1.- Lehen taldean, zentsurak, etenaldiak, ausentziak ditugu, non isiluneak puntuaziozeinuaren eginkizuna duen, beharrezko atsedena, arnasa emanaz, esaldi artean. Eskailera guztietan atsedena-tartekak, eskailburuak, jartzen diren moduan, musikan isiluneak jartzen dira. Isiluneak melodiak osatzen ditu, indartzen eta nabarmentzen du formen zentzua, une bat lehenago aditu denaren hotsari tartekak ematen dio, ondoren datorren berriaren aurretik (...).

2.- Isilune dramatikoek osatzen dute bigarren multzo zabala. Antzerkiaren eta naturaren sistema logikoen ondorengo zuzenak, isilune hauek musika-diskurtsoaren eduki dramatikoa bideratzeko, indartzeko eta husteko gai dira. Horietan aditzen da konpositoreak isiltzen duen guztia. Adierazkortasuna dute euren kokapenaren eta iraupenaren arabera, horiek ere, noski, lanaren testuinguru orokorraren baitakoak direlarik (...).

3.- Hurrengo atalean, entzunezinen atarian, musika den guztiak berez duen isiltasun grina aipatzen du Barcekin, *pianissimo* delakoaren mugan, soinua zurrumurru bilakatzen denean (...).

4.- Gizateriak isiltasunarekin duen harremanaren azken mailan, isiltasunezko bakearen eta musika mundutarraren saila dator.

Gure ingurunearen soinu-okiduraren aurrean (...) barne isiltasunaren beharra nabarmentzen da (...) “gure baitan isiltasuna egiten dugularik, bakarrik, gozatzen ahal dugu musikaz. Musika gure baitan sentitzen dugularik, soilik, aditzen ahal dugu isiltasuna” esan zuen Pepe Rey musikariak irratia batean. Bai, izan ere, isiltasuna beste alderdia da, musikaren atzetik zelatan dagoen osagaia (...).”

Zenbat isiltasun mota ezagutzen dituzu?

Zein sentrazio eta sentimendu eragiten ahal ditu isiltasunak?

Zein asmo izaten ahal du konposatzaile batek bere lanean isilunea tartekatzen duenean?

Ikaskide guztien artean musika-isiluneen katalogoa egiten ahal duzue: datorrenarekiko grina adierazten duen kontzertu aurreko isiltasuna; azken noten eta lehenbiziko txaloen arteko tartea (hain beharrezkoa eta hainbestetan urratua...); *pianissimo* baten ondorengo isilunea; orkestra osoak batera indarrez eraso ondoren datorren hutsunea; galdera baten eta erantzunaren arteko unea..., eta beste hainbeste.

Arestian aipatutako artikuluan, isilune handi eta berariaz egindakoak dituzten lan handien adibide anitz proposatzen dira:

Sibeliusen 5. *Sinfonia* lanaren azken konpasak, Tchaikovskyren 5. *Sinfoniaren* koda, Beethovenen *Laukote Op. 18, 1 zka*, besteak beste.

Interesgarria izan daiteke bilatzea, musika gelan edo zuen musika artxiboetan duzuen errepertorioan, isilune mota desberdinak.

Elkarrekin joko dugu?

Hasieran beti bakarrik jotzen zuen Andreasek, eta Antoniorekin topo egitean piztu zen gatazka: ezin jo dute elkarrekin... pieza desberdinak jotzen baitituzte!

Zein baino zein burugogoragoak dira, biek nahi dute euren ezarri, baina ez dute lortzen eta, azkenean, ohartu egiten dira, elkarrekin jotzeko ados jarri behar dutela, jo beharreko lanaren inguruan ez ezik, beste hainbeste gauzaren inguruan ere bai.

Zein dira taldean jotzeko zehaztu beharreko alderdi horiek?

Belarria zorrozteko ariketa ona –gainera jolas dibertigarria- izan daiteke honako hau, alegia, hitzik gabe kantatzea edo txirulaz nahiz beste instrumenturen batez jotzea melodia ezagun batzuk.

Entzuleek kantua asmatu behar dute, eta zeinek jo ohi duen.

Zuk galdetu eta nik erantzun

Galdera-erantzuna eskema baliabiderik erabilitakoena da musika-heziketan. Lagungarria da erritmoaren sena, koordinazioa, norberak jotzen duenaren nahiz ondokoek jotzen dutenaren entzuketa garatzeko, etab..

Era berean, jazzean gehien erabiltzen den baliabideetako zera da, nolabait esatearren, txandaka jotzea. Musika-tema bat bakarren barnean, taldeko kide bakoitzak bakarlari gisa joko du esaldi edo atal bat, gainerakoek laguntzen dioten bitartean. Baina instrumentu jotzaileetako batek jotzen duenean, aurretik jo dutenek erabilitako erritmoen edo melodiaren osagaiak, itzuliak eta ideiak jasoko ditu. Interbentzioak harilkatzeko eta interpretazioari koherentzia emateko modua da hauxe.

Gorputzaren perkusioa erabilia, edo ikasgelako instrumentuekin nahiz beste hainbat baliabiderek, inprobisazioaren gurpil bat egin dezakezue, zuek nahi duzuen oinarrizko egitura aldeztatik zehaztuta: lau edo zortzi pulsu interbentzio bakoitzak, oinarrizko harmonia-egitura bat, ondoren haren gainean bat-bateko saioak egiteko, guztien artean lelo edo estribilo bat egitea, atzetik norberak estrofak edo ahapaldiak egiteko, etab.

Seguruena hau ere egin izanen duzue inoiz, baina beti ere ona da kontzertuan joko den musika moldetik hain hurbil den jardura hau jasotzea.

Hitz-parrastadak

Hitz-parrastadak hitz-jolasak dira. Horrelakoak egiteko izenak, ekintzak edo esapideak errepikatzen dira, beti hurrenkera berean. Solasteko etorria, arreta eta oroimena garatzeko lagungarriak dira, eta erritmoaren sena eta hitz-jolasak ere bizkortzen ditu.

Badira hitz-parrastadak kantatzeko, jostatu bitartean esateko, zozketa egiteko, soka-saltoan aritzeko...:

Una cosa me he encontrado
cuatro veces lo diré,
si su dueño no aparece
con ella me quedaré.

Chincha, rabiña,
tengo una piña
con muchos piñones
y tú no los comes.

En Pamplona hay una plaza,
en la plaza, una esquina,
en la esquina, una casa,
en la casa, una sala,
en la casa, una sala,
en la sala, una mesa,
en la mesa, una jaula,
en la jaula, un loro,
en el loro, una pata,
en la pata, ...un hilo.
El hilo en la pata,
la pata en el loro,
el loro en la jaula,
la jaula en la mesa,
la mesa en la sala,
la sala en la casa,
la casa en la esquina,
la esquina en la plaza,
y la plaza en Pamplona.

¿Quieres que te cuente un cuento?
¡Pásate a este otro asiento!
¿Sabes el cuento del gallo pelado?
¡Pásate a este otro lado!

Ipuinaren narrazioan, honako hitz-parrastada hau aurkituko dugu, hainbat aldiz errepikatuta:

“Eta halaxe jarraitu zuen, mendebalderantz errari, bere musikarekin alde eginez. Mendietara igo, ibaiak igaro, kobazuloetan lo eginez ibili zen Andreas, musika beti berarekin zuela.”

Orain, zera proposatzen dizuegu, zuek zeuek jartzea musika, erritmo lagungarria, aldarte nahiz doinu desberdinez esatea...

Atril tolesgarria egitea

Jarduera hau ez da musikari bete-betean dagokiona, baina dibertigarria izan daiteke.

Kontzertuko umore-keinuetako bat denez, kontzertua entzun eta ondoren egiteko gordetzea proposatzen dizuegu.

Andreasek eta bere lagunek laukote bat osatzea erabaki zutenean, atrilak beharko zituzten, noski, elkarrekin jo behar zituzten partitura guztiak bertan jartzeko. Eta egia borobila da, alajaina, munduan den gauzarik zailenetako bat atril tolesgarria muntatzea dela!

Horixe da, ba, orain proposatzen dizueguna, alegia, atril tolesgarria muntatzen ikastea, eta dagoeneko ikasia baduzue, egizue lehiaketa, ea zeinek muntatzen duen agudoago.

Antzinako musika antzinako instrumentuez

Azkeneko urte hauetan antzinako musika ikasteko eta interpretatzeko interes gero eta handiagoa antzematen dugu, hala nola garai hartako musika-tresnak berreskuratzeko ere.

Lehen ere esan dugunez, kontzertu honetan pizkunde garaiko musika eta jazza elkarrekin ditugu, saxofoiaren sonoritatea eta ganba-biolaren samurtasuna, biak batera.

Ikerlari lana egitea proposatzen dizuegu, kontzertuan entzunen dituzuen instrumentuak ikergai hartuta. Txirula ezta, klarineta, saxofoia, gitarra, ganba-biola eta hainbat perkusio-tresna hartu eta haien jatorria, zein musika mota jo ohi duten, zein materialez egiten diren, jotzaile ospetsuak, etab.

Bestalde, interesgarria izan daiteke kontzertuko errepertorioko piezen jatorrizko bertsioren bat entzutea.



Bibliografía:

- Ardley, N. (1989). *La música*. Ediciones Altea, Taurus, alfaguara, S. A., Madrid.
- Grout, D. J. y Palisca, C. V. (1988). *Historia de la música occidental, I*. Alianza Editorial, Madrid.
- Malson, L. (2008). *Los maestros del jazz*. Alba Editorial, Barcelona.
- Palacios, F. (1997). *Escuchar. 20 Reflexiones sobre música y educación musical*. Fundación Orquesta filarmónica de Gran Canaria. Las Palmas de Gran Canaria.
- Reese, G. (1988). *La música en el Renacimiento I y II*. Alianza Editorial, Madrid.
- Tirro, F. (2007). *Historia del jazz clásico*. Colección Ma non troppo. Música. Ediciones Robinbook, Barcelona.
- Ulrich, M. (1977). *Atlas de Música I y II*. Alianza Editorial, Madrid.

Diskografía:

Jazz sinfonikoa

RTVEko Orkestra Sinfonikoa eta Quinteto de Jazz

Zuzendaria: José Nieto

Narratzailea: Carmelo Gómez

Radio Nacional de España, RTVE-Música

Ref.: CD 65250

(Barnean du "Jizzerako bidea" Gunther Schullerren lana, jazz tornpeta jotzaile izan nahi duen gaztearen bizitza kontatzen duena).

Looking back over The Renaissance

Andreas Prittwitz

Argitaletxea: 18 chulos records, S.L. Madrid, 2008.